

MENDIKO ZINEMA ZUZENDARI HANDIEN AGERTOKIA

Aitor Elduaian



MF2024 ALWAYS ALIVE Seb Montaz eta Davina Beyloos Jabi Baraiazarrarekin

Mendi Filmek 18. edizioa du aurtengoa. Adin nagusitasunaren ikur, zenbaki sinboliko izatetik harago, urteen joanak, urteen ontzeak, mendiko zinemaren industriako agertoki garrantzitsuenetako moduan egonkortu dute festibala. Agertoki ezin hobe aldian aldiko pelikula onenentzat, eta ondorioz, zuzendari puntakoenentzat ere bai.

Mendi Filmeko publikoak aurrez aurre ezagutu ditu Michael Brown, Sebastián Álvaro, Alastair Lee, Peter Mortimer, Zach Barr, Kurt Diemberger, Keith Partridge, Dariusz Zaluski, Michael Dillon, Eliza Kubarska, edota Seb Montaz. Mendiko zinemaren aldeko nazioarteko aliantzak (IAMF) urtero ematen duen Sari Nagusiaren palmaresean ageri diren zuzendariak dira guztiak, jada Mendi Filmeko publikoarentzat ezagunak.

Aipatutako izenak ezezik, beste hainbaten berri ere badu jada Mendi Film zaleak. Urtero, jaialdiko Sail Ofizialaren eta pelikula hautatuen berri ematen denean, zerrenda errepa-

satu eta Mendi Film jarraitzaileek badituzte erreferentziak, izen ezagunak eta haien ibilbideen berri. Eta urteen joanean aberastu den kultura eta ezagutza da hori.

Aurten, esaterako, Sébastien Montaz-Rosset-i aitortu dio IAMF-k Sari Nagusia. Alpeen altzoan partekatzen du Davina Beyloos bikotekidearekin batera Montaz-Rosset Studio ekoiztetxea. Mendi Filmen birritan egonak dira, 2024an 'Always Alive' eta 2022an 'De L'ombre à la Lumière' aurkeztuz. Aurrenak Hillary Gerardi mendi korrikalaria du protagonista, eta bigarrenak Charles Dubouloz alpinista, biak ala biak Mont Blancoko mendilerroan daude kokatuak.

Mendi Filmen, 2012an aurkeztu ziren lehendabiziko aldiz Seb Montazen pelikulak: 'One Step Beyond' Géraldine Fasnacht base jauzilariari buruzkoa, eta Flying Frenchies taldearen 'I Believe I Can Fly'. Kilian Jornet mendi korrikalaria izan zen gero zinegile frantziarraren musa: 'A Fine Line' (2013),

'Déjame vivir' (2014) eta 'Langtang' (2016) pelikulekin, eta 'Summits of my Life' proiektuan ere esku hartu zuen. Harrezkero, muturreko jardura askotariko kirolari handien abenturak kontatu ditu, high-line, parapentea, wingsuit hegaldiak, eskia eta Himalaiako alpinismoa esaterako.

"Bere teknika eremuak urtetik urtera eboluzionatu du, eta bere pelikuletan kalitate handia sumatzen da erroda-jean, batzuetan egoeren zailtasuna eta konpromiso fisiko eta psikologikoa erakusten duten momentu gordinak ere dokumentatuz. Instintuz egindako zinema, gidorik gabe jaiotakoa, momentuko emozioetan oinarritutako irudiak bilduz, gero istorioa handitzeko baliagarriak izango diren elementu liluragarrienak identifikatuz", hala goratu du IAMF-k zuzendari frantziarra aurtengo Sari Nagusiaren justifikazioan. Italiako Trentoko jaialdian egin zen sari banaketa, apirilean, eta Jabi Baraiazarrak eman zion garaikurra, IAMF-ko presidente lez.

IAMF Sari Nagusi hori ospatzeko, aurtengo Mendi Filmen 'Out of the Blue' pelikula proiektatuko da, 2020an Epaimahaiaren Aipamen Berezia jaso zuena. Suitzako Oberlandeko mendi gailurretan kokatzen den pelikula da, proiektu liluragarri bat gauzatu zuen Bernako gazte talde baten ingurukoa: highline, akroyoga, spacenet, aireko oihal bertikalak, parapentea, wingsuit hegaldiak... Era guztietako osagaiak biltzen zituen odisea bertikal harrigarri batean murgildu gintuzten Seb Montaz eta Davina Beyloos-ek pelikula horrekin.

'Out of the Blue'-ren soinu banda Josue Vergara musikari valentziarrak konposatu zuen gainera, eta pelikula honek ikusle askorengan zirrara berezia eragin bazuen, hein handi batean musikagatik izan zen. Soinu banda harekin, Josue Vergarak Espainiako Ikus-entzunezkoen Musikaren Saria jaso zuen bi urte geroago, 2022an. Bidenabar, bera ere Mendi Film komunitateko kide da: Epaimahaiakide lanetan aritu zen 2022an, eta Henna Taylor zuzendariaren eta Madaleine Sorkin eskalatzailearen 'Body of a Line' film laburreko soinu banda ere konposatu zuen 2023an.

MF2018 THE DAWN WALL Peter Mortimer eta Tommy Caldwell



MF2019 Alastair Lee

ZUZENDARI ETA EKOIZTETXE EMANKORRENAK

Montaz-Beyloos uztarria Mendi Filmen historian emankorra izan da oso: 10 pelikula aurkeztu dituzte guztira. Langa horretatik gora daudenak, "etxekotzat" har litezke jada, festibalaren 18 urteen zati handi bat dira, eta badute amankomunean beste zerbait: Mendi Filmeko hastapenen aroan, Gasteizko lehen edizioetan parte hartu izana, 2008tik 2011ra bitartean.

Peter Mortimer, Zach Barr eta Josh Lowellen Sender Films ekoiztetxe estatubatuarra da emankorrenen zerrenda gailurrean dagoena, 28 pelikulekin. Mendi Filmeko Sari Nagusia behin irabazi dute, 2014an 'Valley Uprising'-ekin, eta haien beste 10 pelikula ageri dira Mendi Filmeko palmaresean. Kirol eta Abentura Film Onena: 'The Sharp End' (2009), 'Fly or Die' (2011) eta 'Dodo's Delight' (2016); Eskaladako Film Onena: 'Origins: Obe and Ashima' (2012), 'The Sensei' (2013), 'A Line Across the Sky' (2015) eta 'Black Ice' (2021); Epaimahaiaren Saria: 'The Dawn Wall' (2018) eta 'Resistance Climbing' (2023); eta Film Labor Onena, behin: 'High and Mighty' (2015). 2016an jaso zuten Senders-tarrek IAMF Sari Nagusiaren aitortza.

Alastair Lee zinegile britainiarraren ekarpena ere zabala izan da: 19 pelikula izan ditu Mendi Filmen. Tartean 'Ephemeral' (2023an Argazkilaritza Onena), 'Climbing Blind' (2019an Eskaladako Film Onena) eta 'The Asgard Project' (2010ean Mendiko Pelikula Onena). Azken pelikula honetan, Leo Houlding eta Carlos Suarez ziren protagonistak. Tamalez, aurtien, apirilaren lehen zende zen Carlos istripuz, hegazkin batetatik jauzi egin eta haren paraxutak huts eginda. Mendi Filmekin lotura handia zuen, eta RSEA Peñalarako kide gisa



Ben Sturgulewski

ere hainbatetan parte hartu zuen Madrilgo Mendi Tour emanaldietan. Hori dela eta, 2025eko urriaren 6tik 9ra Madril en egingo den edizio berrian 'The Asgard Project' proiektatuko da omenaldi moduan, besteak beste, Alastair Leek hala hobetsita. Britainiarrak ere badu IAMF Sari Nagusia haren ibilbidearen aitortzan, 2013an jaso zuen.

Paul Diffley eta Hot Aches ekoiztetxe britainiarra ere Mendi Film hastapenetako zutabe izan ziren, guztira haien 14 pelikulek parte hartu dute lehiaketan. Aurrenekoa 2008an, 'Ell', eta nabarmenena, 2010ean; Mendi Filmeko Sari Nagusia irabazi zuen 'The Pinnacle'.

Ben Sturgulewski zinegile estatubatuarren 11 pelikula ere ikusi ahal izan dira Mendi Filmen. 2011ean aurkeztu

zituen 'Signatures' eta 'Solitaire', Gasteiza bertara etorrita, eta Ikusleen Saria irabazi zuen bigarrenarekin. 2022an, berriz, haren 'Creation Theory' pelikulak Soinu Banda Onenaren saria jaso zuen, Griff Washburn eta Goth Babe konposatzaileen lana aitortuz.

Pavol Barabas eslovakiarrak, bere aldetik, 10 pelikula izan ditu Mendi Filmen. Lehena 2010ean 'Cartensz the Seventh Summit', eta tartean 2016ko Mendi Filmeko Sari Nagusia irabazi zuen 'Freedom Under Load'. Pavol Barabas ere IAMF Sari Nagusia jasotakoa da, 2011ean.

Azkenik, Jordi Canyigüeral zinegile kataluniarra, hein handi batean Pou Anaïen ibilbideari lotua. 10 pelikula aurkeztu ditu Mendi Filmen, eta haietako bat saritua izan zen gainera: Pan Aroma, 2011an Mendi Filmeko Ikusleen artean gogokoena izan zen pelikula.

BEN STURGULEWSKIREN 'CHAMPIONS OF THE GOLD VALLEY' 2025EKO MENDI FILMEN

Aipatutako zuzendarietako bat izango da aurtengo abenduan Mendi Filmeko izar gonbidatu etako bat, Ben Sturgulewski. 'Champions of the Golden Valley' aurkeztuko du, Iparramerikan sekulako arrakasta eta aitortza jasotzen ari den pelikula. New Yorkeko Tribeca festibalean estreinatu zen iaz, eta harrez gero 25 saritik gora irabazi ditu, hainbatetan Ikusleen eta Epaimahaiko kideen sariak, besteak beste, Banff Mountain Film festibaleko Sari Nagusia eta Ikusleen Saria.




Champions of the golden valley

Estatuko estreinaldia Bilbon egingo da, Mendi Filmen, eta Alaskako zinegilea bertan izango da.

Afganistango Bamiyan mendiko urrutiko herrietan kokatzen da 'Champions of the Golden Valley', han eskiatzeko zaletasuna piztu berri zeneko garaian. Oinarri-oinarrizko ekipamenduarekin eta egurrezko hala-nolako eskiekin, Alishah Farhang entrenatzaileak lasterketa zirrargarri bat antolatuko du, etnia desberdinetako gazteen arteko giro ona eta lehia bultzatzen dituen. Krisi betean dagoen Afganistanen, ordea, gazte horietako asko munduan zehar barreiatuta bizi dira errefuxiatu gisa, eta jaioterriko mendietan ikasitako lezioak baliatzen dituzte aurrera egin ahal izateko. Sekulako pelikula, gaiari, kokapenari nahiz filmagintzari dagokionez.

Sturgulewski, Sweetgrass ekoiztetxeko kide gisa ezagutu genuen zinegile hastapenetan, Nick Wagoon, Mike Brown eta Zac Ramrasekin batera. Ordukoak dira 'Solitaire', 'Signatures' edota 'Valhalla' bezalako pelikula mitikoak. Bakarkako zinegile ibilbidean, berriz, film laburretan islatu du batik bat bere artea, elurretako agertoki magiko eta exotikoak eta jarduera estetikoak bilatuz beti ere: 'The Warmth of Winter' (2015), 'Apex Predators of the Northern Deep' (2017), 'Song for the Nomad' (2017), 'The Time Within' (2017), 'Wallmapu' (2018), 'The Ridge of Dreams' (2019) edota 'Creation Theory' (2022). Bere kabuz egindako iraupen luzeko filmerik ere badu, 'Ruin and Rose' bikaina kasu.

Abenduaren 5etik 14ra egingo da Mendi Filmen 18. edizioa. 10 egun bete-betekoak, Kanpaleku Nagusia Euskalduna Bilbaon ezarrita. Han ikusi eta gozatuko diren pelikula berriei eta programazioarekin bete-betean



ari da Mendi Filmeko lan taldea, eta laster emango ditu ezagutzera xehetasunak. Euskal Mendizale Federazioa festibalaren babesleetako bat da, eta abantailak eskainiko zaizkie federatuei.

MF2017 Jordi Canyigueral eta Pou Anaiak & Neus Colom

